

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak, 2009ko ekainaren 2an egindako bileran, Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2009ko uztailaren 20ko bileran, eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegeia S.Aren Administrazio Kontseiluak, 2009ko uztailaren 20ko bileran, onartu zuten hitzarmena, iragarki honen eranskinean agertzen dena. Hitzarmena 2009ko uztailaren 20an izenpetu zuten hiru erakundeetako ordezkariak.

Horiek horrela, hitzarmena osorik argitaratzen da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.2 atalak eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8.1 atalean ezarritakoari jarraituz.

Azpeitia, 2015eko abenduaren 15a.—Lehendakaria.  
(10472)

1. ERANKINA

*Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren, Urola Erdia Mankomunitatearen, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA-ren eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegeia, SA-ren Arteko Lankidetzaren Hitzarmena, zabortegeira bota behar diren hiri hondakinen goi-hornidurako kudeaketa sistema koordinatzeko, Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko zentroa abian jarri, lapatx zabortegeia handitzeko inbertsioak ordaindu eta lapatxeko transferentzia estazioa nahiz konpostatzeko planta egiteko lurren erabileraren lagapena egin arte.*

Donostian, 2009ko uztailaren 20n.

BERTARATU DIRA

Alde batetik, Carlos Ormazabal Urbizu jauna, 2009ko ekainaren 2ko batzarrak hartutako erabakiari jarraiki Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari legez; eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SA (aurrerantzean GHK, SA) sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakari gisa, Administrazio Kontseiluak 2009ko maiatzaren 21ean hartutako erabakia betez.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hitzarmen hau gauzatuko du GHK, SA kide bakarreko sozietatearen bitartez, eta, beraz, Hitzarmenean Kontsortzioa aipatzen den guztietan, GHK, SA ere aipatzen dela ulertuko da.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA sozietateak hitzarmen honetan erakunde instrumental bezala parte hartzen du, hitzarmenean erabakitakoa gauzarazteko eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarentzat zehaztutako eskubide eta betebeharrak bere gain hartzeko arduraz.

Beste alde batetik, Asier Arambarri jauna, Urola Erdia Mankomunitateko lehendakari gisa, Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2007ko urriaren 2an erabakitakoari jarraituz.

MANCOMUNIDAD DEL UROLA MEDIO

*Anuncio*

La Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en sesión celebrada el 2 de junio de 2009 y la Mancomunidad de Urola Medio, en sesión celebrada el 20 de julio de 2009 aprobaron el Convenio de Colaboración que figura en el anexo 1 del presente anuncio. La formalización del Convenio mediante la firma de los representantes de las tres instituciones tuvo lugar el 20 de julio de 2009.

Por ello, conforme a lo prescrito en el artículo 13.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el artículo 8.1 de la 9/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, se procede a la publicación íntegra del Convenio.

Azpeitia, a 15 de diciembre de 2015.—El presidente.  
(10472)

ANEXO 1

*Convenio de colaboración entre el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, la Mancomunidad Urola Erdia, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A. y Urola Erdiko Lapatx Zabortegeia, S.A. para la coordinación del sistema de gestión en alta de residuos urbanos con destino a vertedero hasta la puesta en marcha del centro de gestión de residuos de Gipuzkoa, el pago de las inversiones para la ampliación del vertedero de Lapatx y la cesión de usos de los suelos para la estación de transferencia y la planta de compostaje de Lapatx.*

En Donostia-San Sebastián, a 20 de julio de de 2009.

COMPARECEN

De una parte, el Ilmo. Sr. D. Carlos Ormazabal Urbizu, en calidad de Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en virtud de acuerdo de la Asamblea de 2 de junio de 2009, y en calidad de Presidente del Consejo de Administración de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A. (en adelante GHK, S.A.), actuando en virtud de acuerdo del Consejo de Administración de 21 de mayo de 2009.

El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ejecutará este convenio a través de su sociedad unipersonal GHK, S.A., por lo que toda mención hecha en el Convenio al Consorcio se entenderá igualmente realizada a GHK, S.A.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A. interviene en el presente Convenio como entidad instrumental encargada de ejecutar sus determinaciones y de asumir los derechos y obligaciones que en el mismo se determinan para el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

De otra, el Sr. D. Asier Arambarri, en calidad de Presidente de la Mancomunidad Urola Erdia, actuando en virtud de acuerdo adoptado por Junta Rectora de la Mancomunidad de fecha 2 de octubre de 2007.

Beste alde batetik, Julián Eizmendi jauna, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren Administrazio Kontseiluko lehendakari gisa, 2007ko azaroaren 12an kargu horretarako izendatua. 2009ko uztailaren 20ko bileran Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia betez.

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, SA sozietateak hitzarmen honetan erakunde instrumental bezala parte hartzen du, hitzarmenean erabakitakoa gauzarazteko eta Urola Erdia Mankomunitatearentzat zehaztutako eskubide eta betebeharrak bere gain hartzeko arduraz.

#### PARTE HARTZEA

Aipatutako guztiek beren karguen berezko eginkizunak betez parte hartzen dute, eta elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa, eta horretarako honako hau adierazi dute:

#### ADIERAZITAKOAK

1. Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioko lehendakariak 2008ko ekainaren 25ean egindako eskaerari erantzunez, Urola Erdia Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak, 2008ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Azpeitiko Lapatx zabortegiko jarduera 2009ko uztailaren 16tik aurrera luzatzeko erabakia hartu zuen, aipatutakoa baitzen zabortegia ixteko eguna, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketaren Etorkizuna zehazteko Hitzarmenaren bidez hala erabakita; hala, zabortegiaren itxiera Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioak Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Zentroa abian jarri arte atzeratzea erabaki zen.

2. Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioak eta Urola Erdia Mankomunitateak uste dute, hondakinen goi-hornidurako kudeaketa egiteko, bete beharrekoa dela Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketaren Etorkizuna zehazteko Hitzarmenaren ondorioa den eskumen-eskema, eta, beraz, Urola Erdia Mankomunitateak erabateko independentzia mantenduko du bertako zabortegia kudeatzeko orduan, aipatutako hitzarmenean adierazitako baldintzen arabera.

3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioaren eta Urola Erdia Mankomunitatearen iritzia da, hala ere, hondakinen goi-hornidurako kudeaketari hitzarmen honetan adierazitako irizpideak ezarri behar zaizkiola, herritarrei behar bezalako zerbitzua eskainiko zaiela eta Gipuzkoan hiri-hondakinak uzteko oraindik erabiltzen diren hiru zabortegien artean (Beasain, Azpeitia eta Zarautz) beharrezkoa den koordinazioa egingo dela bermatzeko.

Adierazitako helburuak erdiestearren, parte-hartzaileek lan-kidetza-hitzarmen hau izenpetu dute, honako xedapen hauen arabera:

#### XEDAPENAK

#### LEHENENGO ATALA

#### HONDAKINAK BOTATZEKO BAIMENAK

*Lehenengoa. Hondakinak botatzeko baimena, 2009ko uztailaren 17tik aurrera.*

2009ko uztailaren 17tik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsartziolari egokituko zaio hiri-hondakinen goi-hornidurako kudeaketa egiteko eskumena eta, hala, Azpeitiko Lapatx zabortegian hiri-hondakinak bota ahal izango dituzte, bakar bakarrik, aldez aurretik Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioaren baimena duten erabiltzaileek, hitzarmen honetan adierazitako zehaztapenen arabera, eta erabiltzaile horiek mankomunitateak, udalak edo erabiltzaile partikularrak izan daitezke.

*Bigarrena. Hondakinak botatzeko baimena ematea erakunde publikoei.*

Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioa baimenduta dago transferentzia-estazioetara iristen diren etxeko hondakinak botatzeko.

De otra, el Sr. D. Julián Eizmendi, en calidad de Presidente del Consejo de Administración de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A. designado para dicho cargo en fecha 12 de noviembre de 2007. Actuando en virtud de acuerdo adoptado por el Consejo de Administración de 20 de julio de 2009.

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A. interviene en el presente Convenio como entidad instrumental encargada de ejecutar sus determinaciones y de asumir los derechos y obligaciones que en el mismo se determinan para la Mancomunidad Urola Erdia.

#### INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y al efecto,

#### DECLARAN

1. Atendiendo la petición del Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de fecha 25 de junio de 2008, la Junta Rectora de la Mancomunidad Urola Erdia, adoptó el acuerdo de prolongar la actividad del vertedero Lapatx de Azpeitia, más allá de la fecha de cierre prevista en el «Convenio para la Definición del Futuro de la Gestión de los Residuos Urbanos de Gipuzkoa» para el día 16 de julio de 2009, posponiendo el cierre de dicho vertedero hasta la puesta en marcha, por parte del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa (CGRG).

2. El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y la Mancomunidad Urola Erdia convienen en que la gestión de residuos en alta debe respetar el esquema competencial derivado del «Convenio para la Definición del Futuro de la Gestión de Residuos de Gipuzkoa», por lo que la Mancomunidad de Urola Erdia mantiene la más absoluta independencia en la gestión de su vertedero, en los términos ya prevenidos en el señalado Convenio.

3. El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y la Mancomunidad Urola Erdia aprecian no obstante la necesidad de aplicar a la gestión en alta de los residuos los criterios que se fijan en el presente Convenio, a fin de garantizar el adecuado servicio al ciudadano y la necesaria coordinación entre los tres vertederos de residuos urbanos que quedan operativos en Gipuzkoa en Beasain, Azpeitia y Zarautz.

Para la consecución de los objetivos descritos, los intervinientes suscriben el presente Convenio de Colaboración que someten a las siguientes.

#### ESTIPULACIONES

#### SECCIÓN PRIMERA

#### DE LAS AUTORIZACIONES DE VERTIDO

*Primera. De la autorización de vertido a partir del 17 de julio de 2009.*

Correspondiendo al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa a partir del 17 de julio de 2009 la competencia de gestión en alta de residuos urbanos, sólo podrán verter residuos urbanos en el vertedero Lapatx de Azpeitia, aquellos usuarios que hayan sido previamente autorizados por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa conforme a las determinaciones del presente Convenio, ya sean éstos Mancomunidades, Ayuntamientos o usuarios particulares.

*Segunda. De las autorizaciones de vertido a entidades públicas.*

El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa queda autorizado para el vertido de residuos domiciliarios recepcionados en las estaciones de transferencia.

Hiri-hondakinak Kontsortzioko partaide diren beste administrazio publiko batzuetatik zaborteigira zuzenean eramaten direnean, Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak emango ditu baimenak, Urola Erdia Mankomunitateak hondakinak sartzeko baldintza teknikoak erabaki eta gero.

Hiri-hondakinak beste administrazio batzuetatik eramaten direnean, Urola Erdia Mankomunitatearen baimena ere izan beharko dute.

*Hirugarrena. Hondakinak botatzeko baimena ematea partikularrei.*

Oro har, hiri-hondakinekin parekagarriak diren hondakinak sortzaile bereziek eta sortzaile handiek hondakin horiek bota nahi dituztenean, Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak uanean-uean definitzen dituen lurraldeko transferentzia-estazioak erabili beharko dituzte, lehentasunez. Inguruan transferentzia-estaziorik ez badago, edo behar bezala arrazoitutako ohiz kanpoko kausak direla medio, partikularrek baimena eskatu ahal izango diote Kontsortziolari zaborteigira zuzenean joateko eta hondakinak bertan uzteko.

Horrelakoetan, Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak emango dizkie sortzaile partikularrei etxekoekin parekagarriak diren hondakinak botatzeko baimenak. Hala eta guztiz ere, hondakinak bota ahal izateko, ezinbestekoa izango da sortzailea kokatuta dagoen inguruneari dagokion mankomunitateak nahiz hondakinak utzi behar diren zaborteigian kudeaketaz arduratzen den mankomunitateak alde aurretik baimena ematea.

Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak arautuko du baimena emateko prozedura, Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak Hiri Hondakinak Transferentzia, Garraioa eta Tratamendua egiteko Zerbitzu Publikoari buruz emandako Araudiaren bitartez.

*Laugarrena. Hondakinak zaborteigian sartzeko kontrola.*

Urola Erdia Mankomunitatearen ardurak izango da Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak hiri-hondakinak sartzeko emandako baimena ez duten erabiltzaile guztiei zaborteigian sartzen ez uztea eta, halaber, aipatutako baimena duten erabiltzaile guztien sarrerak kontrolatzea.

*Bosgarrena. Hondakinak isurketen inguruko araubide ekonomikoa.*

Urola Erdia Mankomunitateak Gipuzkoako Hondakinak Kontsortziolari ordainduko dizkio Kontsortzioaren Batzarrak urtero erabakitzen dituen isurketa-tasak; 2009. urterako hau izango da isurketa-tasa: 64,00 €/t, hiri-hondakinak eta hondakin parekagarriak direnean.

Urola Erdia Mankomunitateak Gipuzkoako Hondakinak Kontsortziolari fakturatuko dizkio isuritako hiri-hondakin guztiak, baita Urola Erdia Mankomunitatekoak ere, zaborteigian tratatzeko zerbitzua emateko ezarritako tasak. Fakturak Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioaren Hiri Hondakinak Transferentzia, Garraioa eta Tratamendua egiteko Zerbitzu Publikoari buruzko Araudian adierazitakoaren arabera banakatuta egongo dira, eta datu hauek gutxienez adieraziko dira bertan: erabiltzailea, hondakin mota, isurketa egin den eguna eta pisua. Nolanahi ere den, banakatzea behar bezain zehatza izango da, Gipuzkoako Hondakinak Kontsortzioak, bere aldetik, hondakinak goi-hornidurako kudeaketa-zerbitzuaren erabiltzaileei kudeaketarako dituen tarifak fakturatu ahal izateko. Hartara, Mankomunitateak informazioa erregistratu beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiak garatu duen Hiri Hondakinak Kudeatzeko Sistemari (SIGRU).

En el caso de que los residuos urbanos accedan directamente al vertedero desde otras administraciones públicas que formen parte del Consorcio, las autorizaciones se concederán por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, previa determinación por la Mancomunidad de Urola Erdia de las condiciones técnicas de la entrada.

En caso de que los residuos urbanos procedan de otras administraciones, deberán contar además con el consentimiento de la Mancomunidad Urola Erdia.

*Tercera. De las autorizaciones de vertido a particulares.*

Como norma general, los generadores singulares y grandes generadores de residuos asimilables a domiciliarios que deseen deshacerse de los mismos mediante vertido utilizarán preferentemente las estaciones de transferencia que defina en cada momento el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en el territorio. En caso de ausencia de una estación de transferencia en el entorno o por causas excepcionales debidamente justificadas, los particulares podrán solicitar al Consorcio autorización para acceder directamente al vertedero y efectuar el vertido.

En tal caso, las autorizaciones para el vertido de residuos asimilables a domiciliarios a generadores particulares las otorgará el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa. No obstante lo anterior, el vertido sólo podrá realizarse previa conformidad tanto de la mancomunidad en cuyo ámbito se ubique el generador del residuo como de la mancomunidad responsable de la gestión del vertedero destinatario del mismo.

El procedimiento de autorización se regulará por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en el Reglamento del Servicio Público de Transferencia, Transporte y Tratamiento de Residuos Urbanos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

*Cuarta. Del control de entrada de residuos al vertedero.*

Será responsabilidad de la Mancomunidad Urola Erdia impedir la entrada al vertedero a todo usuario que no cuente con la correspondiente autorización de entrada de residuos urbanos emitida por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y efectuar el control de las entradas de todos aquellos usuarios que sí disponen de dicha autorización.

*Quinta. Del régimen económico de los vertidos.*

La Mancomunidad Urola Erdia devengará al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa las tasas de vertido que anualmente apruebe su Asamblea, y que para el 2009 se fijan en 64,00 €/Tn. para los residuos urbanos y asimilables.

La Mancomunidad Urola Erdia facturará al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa las tarifas por la prestación del servicio de tratamiento en vertedero de la totalidad de los residuos urbanos vertidos, incluidos los de la propia Mancomunidad Urola Erdia, desglosadas con arreglo a lo que determine el Reglamento del Servicio Público de Transferencia, Transporte y Tratamiento de Residuos Urbanos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, y que cuando menos definirá el usuario, tipo de residuo, día de vertido y peso. En todo caso, el desglose será suficientemente detallado para que el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa pueda a su vez, facturar a los usuarios del servicio de gestión en alta de residuos sus tarifas de gestión, debiendo registrarse la información por la Mancomunidad en el Sistema Integral de Gestión de Residuos Urbanos desarrollado por la Diputación Foral de Gipuzkoa (SIGRU).

## BIGARREN ATALA

### ZABORTEGIA HANDITZEA

*Seigarrena.* 2009ko uztailaren 17tik Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Zentroa abian jarri arte Gipuzkoako hiri-hondakinaren goi-hornidurako kudeaketa bideragarria izan dadin, Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioak eta Urola Erdia Mankomunitateak, hitzarmen honen bitartez, Lapatx zabortegia handitzea erabaki dute.

Zabortegia handitzearen kostua bi milioi eta zazpiehun mila eurotan balioztatu da (BEZa barne). Kopuru horren barruan sartuta daude kostu hauek: lursail mugakideak erostea edota desjabetzea, zabortegiaren mugak zabaltzeko egin beharreko obra zibila, proiektuak idaztea eta obrako zuzendaritza, lurren kudeaketa egitearen kostuak, legez eska daitezkeen baimen guztiak eskuratzea, eta zabaltze horrekin zuzenean zerikusia duten beste baimen batzuk lortzea.

Goian definitutako objektu materialaren barruan ez daude sartuta egin litezkeen aldaketak edo obra osagarriak, horiek buruzko berariazko hitzarmenak egin beharko direlako, behin horiek egitea egokia dela erabaki eta gero.

*Zazpigarrena.* Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioak Lapatx zabortegia egokitzeko beharrezkoak diren inbertsioak ordaintzeko konpromisoa hartzen du, aurreko xedapenean zehaztutako zenbatekoaren mugaz, hala ere; horren truke, Gipuzkoako hiri-hondakinak Lapatx zabortegian botatzeko esku-bidea izango du, hitzarmen honetan adierazitakoaren arabera, zabortegiaren edukiera-mugara iritsi arte. Edukiera-muga hirurehun eta hirurogeita hamabost mila tonatan zehaztu da.

Esleipenaren prezioaren gainean eragin ekonomikoa izan dezaketen kontratu-gorabeherak kontratuen esleipenetan izandako bajen ondorioz lortutako aurrezkien kargura finantzatuko dira; mota horretako funtsik egon ezean, hitzarmen berri bat egingo da horien finantzaketa arautzeko. Nolanahi ere den, diru-laguntzaren zenbatekoa gutxiagotu egingo da diruz lagundutako jarduketaren likidazioaren ondorioz lortutako aurrezkien arabera.

*Zortzigarrena.* Urola Erdia Mankomunitateak konpromiso hauek hartzen ditu:

– Hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak abian jartzeko beharrezkoak diren kontratazioak egitea.

– Indarrean dagoen araudiari jarraiki eskatu behar diren baimen guztiak lortzeko ardura bere gain hartzea.

– Egin beharreko obren lizitazioa egitea, 2009. urtean burutu ahal izateko.

– Zabortegia eta horri gehitutako zatia berezko bitartekoak edo azpikontratututako bitartekoak erabilita ustiatzea, eta bertan Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioak igortzen dizkion hiri-hondakinak tratatzea, edukiera-mugara iritsi arte eta Gipuzkoako Hiri Hondakinaren Kudeaketaren Etorikizuna zehazteko Hitzarmenaren III. Eranskinean zehaztutako eran mugatuta.

– Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo bere izenean jarduten duen edozein erakunde edo zerbitzu publiko zein pribaturi eskaintzea emandako diru-laguntzari buruz eskatzen zaion informazioa, eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako finantza-egiaztapen edo kontrola egiteko jarduketak onartzea.

– Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioa jakinaren gainean jartzea xede bera erdiesteko edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk emanda beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu, eta baita diru-laguntza emateko kon-tuan hartu den edozein baldintza aldatzen bada ere.

## SECCIÓN SEGUNDA

### DE LA AMPLIACIÓN DE VERTEDERO

*Sexta.* A fin de hacer viable la gestión en alta de residuos urbanos de Gipuzkoa en el periodo que media entre el 17 de julio de 2009 y la puesta en marcha del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa, por medio del presente Convenio de Colaboración, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y la Mancomunidad Urola Erdia acuerdan impulsar la ampliación del vertedero de Lapatx.

El coste estimado de la ampliación del vertedero asciende a la cantidad de dos millones setecientos mil euros (IVA incluido). Esta cantidad incluye los costes de compra-expropiación de terrenos colindantes, obra civil de ampliación de los límites del vertedero, redacción de proyectos y dirección de obra, costes de gestión de terrenos, obtención de licencias y autorizaciones legalmente exigibles y otros directamente relacionados con la citada ampliación.

En el objeto material definido anteriormente no se consideran incluidas las posibles modificaciones u obras complementarias, las cuales tendrán que ser objeto de convenios propios, una vez acordada su procedencia.

*Séptima.* El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa se compromete a abonar las inversiones dirigidas a la adecuación del vertedero Lapatx, con el límite del importe indicado en la cláusula anterior, recibiendo a cambio el derecho a verter los residuos urbanos de Gipuzkoa en el mismo hasta el límite de su capacidad en los términos expresados en el presente Convenio, y que se estima en trescientas setenta y cinco mil toneladas de residuos sólidos urbanos.

Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación serán financiadas con cargo a las economías obtenidas por bajas en la adjudicación de los contratos; y caso de no existir fondos de esta naturaleza, se regulará en un nuevo convenio su financiación. En todo caso, el importe de la subvención se minorará ajustándose a las economías que resulten en la liquidación de las actuaciones subvencionadas.

*Octava.* La Mancomunidad de Urola Erdia se compromete a:

– Realizar las contrataciones necesarias para la puesta en marcha de las actuaciones referidas en este Convenio.

– Responsabilizarse de la obtención de aquellas licencias y autorizaciones que, conforme a la legislación vigente, sean exigibles.

– Licitar las obras correspondientes, de manera que se pueda llevar a cabo dentro del año 2009.

– Explotar, con medios propios o subcontratados, el vertedero y su ampliación, comprometiéndose a tratar en la misma los residuos urbanos que le remita el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa hasta el límite de su capacidad, y con los límites establecidos en el Anexo III del Convenio para la definición del Futuro de la Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa.

– Facilitar al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas o cualesquiera organismos o servicios públicos o privados que desempeñen tareas en su nombre, la información que les sea requerida respecto a la ayuda concedida y someterse a las actuaciones de comprobación o control financiero previstas en la normativa vigente.

– Comunicar al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados, así como la modificación de cualquier circunstancia que se hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

*Bederatzigarrena.* Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Urola Erdia Mankomunitateari ematen dion ekarpen ekonomikoak diru bihurtuko da egiten zaizkion fakturen zenbateko osoa ordaintzean, zenbatekoa agortu arte, eta, aldez aurretik, Mankomunitateko organo eskudunak faktura horiek onartu beharko ditu. Era berean, fakturak jatorrizko agirian aurkeztu beharko dira zigitatuak izateko, eta, hala badagokio, egin diren obra-ziurtagiriak gehitu beharko dira.

*Hamargarrena.* Zabortegea handitzearen ondorioz, beharrezkoa izango da Urola Erdia Mankomunitateko langileak zabortegearen ustiapenean aritzea amaierarako aurreikusita zegoen 2009ko uztailaren 16tik aurrera, eta Mankomunitateak ere bere betebeharrak gehitzea Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketaren Etorkizuna zehazteko Hitzarmenaren ondorioa den aurreikuspenaren gainetik.

Behar horren ordain gisa, eta egoera berezia dela aintzakotzat hartuta, bi alderdiek adostu dute erabaki egingo dituztela irizpideak eta baldintzak Urola Erdia Mankomunitatean kokatu behar diren azpiegituren goi-hornidurako kudeaketarako eginkizunak –hala nola, garraioa, transferentzia, eta abar– aipatutako egoera berezian, hala badagokio, dauden pertsonen bete dituzten, betiere proposatutako langileek adierazitako lanak egiteko prestakuntza dutela egiaztatzen badute.

Urola Erdia Mankomunitatean etorkizunean egongo den transferentzia-estazioari dagokionez, eta transferentziaren alorrean goi-hornidurako kudeaketa egiteko eginkizunak Mankomunitatearen eskumenekoak diren hondakinak biltzeko zerbitzuen arabera definitu behar diren heinean, Mankomunitatearen eta Kontsortzioaren artean definituko dira aipatutako eginkizunak.

#### HIRUGARREN ATALA

##### KUDEAKETA KOORDINATZEA

*Hamaikagarrena.* Larrialdietan eta hondamendia dakarten ezinbesteko kausekin parekagarriak diren egoeretan Gipuzkoako zabortegearen batean nahitaez gelditzeko beharra suertatuz gero, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakariak eta Mankomunitateko lehendakariak erabakiko dute zabortegetara aldi baterako bidaltzea plangintza arruntean aurreikusitako baino hondakin gehiago.

Horretarako, zabortegetan hondakinak jasotzeko ohizko edukieratzat hartuko dira Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketaren Etorkizuna zehazteko Hitzarmenaren III. eranskinean zehaztutakoak, eta goiko paragrafoan deskribatutako egoeretan azpiegiturak fisikoki ahalbidetzen dituzten mugen barruan jardungo dela erabaki da, herritarrei zerbitzurik gabe ez uztearren.

*Hamabigarrena.* Urola Erdia Mankomunitateak ez du inolaz ere baimenduko zabortegean isuri ezin diren materialak edo hondakinak uztea, eta, beraz, deskribatutako moduko hondakinak sartzeari galarazteko ahalmena izango du Mankomunitateak, Araudian definitutakoaren arabera bota daitezkeen hondakinen ezaugarriak ez dituztenean, eta beren osaera, aurkezpena edo beste edozein arrazoirengatik juridikoki bota ezin direnean.

#### LAUGARREN ATALA

##### LURZORUAREN ERABILERA LAGAPENAK

*Hamahirugarrena.* Urola Erdia Mankomunitateak, Urola Erdiko Lapatx Zabortegea, SA merkataritzako sozietatearen bidez, Lapatxeko konpostatzeko planta kokatuta egongo den lurzoruak eta plantari egingo zaion handiagotzea erabiltzeko eskubidea laga egin du berrogeita hamar urtez, konpostatzeko plantaren kudeaketarekin eta ustiapenarekin zuzenean lotuta dauden jarduerak egiteko.

*Novena.* La aportación económica del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa se hará efectiva a la Mancomunidad de Urola Erdia mediante el abono íntegro de las facturas que se le expidan, hasta agotar su importe, las cuales deberán haber sido previamente aprobadas por el órgano competente de dicha Mancomunidad. Dichas facturas deberán presentarse en documento original, para su estampillado, y acompañadas, en su caso, de las correspondientes certificaciones de obra.

*Décima.* La ampliación del vertedero trae como consecuencia la necesidad de que la Mancomunidad de Lapatx prolongue más allá de la fecha prevista del 16 de julio de 2009 la vinculación de su personal a la explotación del vertedero e incremente sus obligaciones por encima de la previsión derivada del Convenio para la Definición del Futuro de la Gestión de los Residuos Urbanos de Gipuzkoa,

En compensación a dicha necesidad, y dada la singularidad de la situación, ambas partes convienen que se acordarán los criterios y condiciones para la cobertura por las personas que en su caso se determine que están en la señalada situación de las tareas de gestión en alta de infraestructuras que ubiquen en la Mancomunidad de Urola Erdia como transporte, transferencia, etc. siempre que el personal propuesto acredite su capacitación para la cobertura de las señaladas tareas.

En el caso de la futura estación de transferencia de la Mancomunidad de Urola Erdia, en la medida en que la definición de las tareas de gestión en alta en materia de transferencia debe realizarse en atención a los servicios de recogida de residuos competencia de la Mancomunidad, ésta intervendrá junto al Consorcio en la definición de las mismas.

#### SECCIÓN TERCERA

##### DE LA COORDINACIÓN DE LA GESTIÓN

*Undécima.* En situaciones de emergencia y asimilables a causas de fuerza mayor de naturaleza catastrófica que supongan paradas forzosas de alguno de los vertederos de Gipuzkoa, el Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y el Presidente de la Mancomunidad acordarán la remisión provisional de más residuos a los vertederos de los previstos en la planificación ordinaria.

A tal efecto, se estiman como capacidades ordinarias de los vertederos para la recepción de residuos las determinadas en el Anexo III del Convenio para la Definición del Futuro de la Gestión de los Residuos Urbanos de Gipuzkoa, acordándose que en los casos descritos en el párrafo precedente se actuará dentro de los límites que físicamente permitan las infraestructuras, con el objetivo de no dejar sin servicio al ciudadano.

*Duodécima.* En ningún caso la Mancomunidad Urola Erdia permitirá el depósito en el vertedero de materiales o desechos no susceptibles de ser objeto de vertido, por lo que se reserva la facultad de impedir la entrada de residuos de la naturaleza descrita, que no respondan a las características definidas en el Reglamento como vertibles y que por su composición, presentación, o por cualquier otro motivo jurídicamente no sean susceptibles de ser vertidos.

#### SECCIÓN CUARTA

##### CESIONES DE USO DE SUELO

*Decimotercera.* La Mancomunidad Urola Erdia, a través de la mercantil Urola Erdiko Lapatx Zabortegea, S.A. cede el derecho de uso de los suelos sobre los que se ubique la planta de compostaje de Lapatx y la futura ampliación de la misma por plazo de cincuenta años, para la realización de actividades directamente vinculadas con la gestión y explotación de la planta de compostaje.

Halaber, Urola Erdia Mankomunitateak, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, SA merkataritzako sozietatearen bidez, Lapatxeko transferentzia-estazioa kokatuta egongo den lurzorua erabiltzeko eskubidea laga egin du berrogeita hamar urtez, transferentzia-estazioaren kudeaketarekin eta ustiapenarekin zuzenean lotuta dauden jarduerak egiteko.

Gipuzkoako Hondakinen Kantsortzioaren kontura egingo dira beharrezkoak diren eraikuntza-, konponketa- edo mantentze-lan guztiak, eta lan horiek ondasun higieziei erantsita gertatuko dira.

Nolanahi ere den, lanak Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, SA merkataritzako sozietatearen onura gisa gertatuko dira, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Lagatako ondasuna mantentzeko eta zaintzeko gastuak nahiz urak, argiak, telefonoak, garbiketak, ondasun higiezin gaineko zergak, saneamenduek, zaborrek eta kalte-aseguruek sortutako gastuak eta lagatako ondasunari ezartzekoak zaizkion bestelako gastuak Gipuzkoako Hondakinen Kantsortzioaren kontura eta ardura izango dira.

*Hamalaugarrena.* Hitzarmen honetan adierazitako lagapenak kostubidezko-izaera du, eta prezioa urteko bi euro eta berrogeita hamar zentimo/m<sup>2</sup> izango da; zenbateko hori urtero eguneratuko da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera.

Goiko paragrafoan adierazitakoa hala erabakita ere, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA merkataritza-sozietateak ahalmena izango du aurreko xedapenean zehaztutako ondasun higiezinak erabiltzeko eskubidea berreskuratzeko, egoera hauek gertatzen denean:

- Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Aipatutako ondasun higiezinak hitzarmen honetako hamabosgarren xedapenean adierazitakoa ez den beste edozein helburu erdiesteko erabiltzea.
- Interes publikoa dela kausa.
- Bi alderdien adostasunez.
- Lagatako ondasunak desagertzea.
- Lurzorua erabiltzeko eskubidea iraungitzea.

#### BOSGARREN ATALA

##### BESTE XEDAPEN BATZUK

*Hamabosgarrena.* Hitzarmen hau izenpetzearekin batera, batzorde tekniko bat eratuko da, zazpi teknikari arduradunek osatuta –hiru zabortegia duten mankomunitateetakoak izango dira (Sasieta, Urola Erdia eta Urola Kosta), bi Gipuzkoako Hondakinen Kantsortziokoak eta bi Gipuzkoako Foru Aldundien Garapen Iraunkorreko Departamentuak izendatuak–.

Batzorde Teknikoak bere gain hartuko ditu zabortegien bizi-tza baliagarria luzatzearen ondoriozko kontrol- eta koordinazio-lanak, bai handiagotzeari edo egokitzapenari dagokionez, bai funtzionamenduari dagokionez, Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Zentroa abian jarri arte.

Horrez gain, Batzorde Teknikoak egiaztatuko du hitzarmen honetan emandako xedapenak betetzen direla.

*Hamaseigarrena.* Urola Erdia Mankomunitateko zabortegiak hartzen duen ibarbidearen edukiera fisikoa handiagotzea eginda ere mugatua dela kontuan izanda, Urola Erdia Mankomunitateak edozein arrazoi dela medio (Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Zentroa abian jartzeko epeak atzeratzea, eta abar) Lapatx zabortegia Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Zentroa abian jarri baino lehen bete egingo dela egiaztatzen badu, Mankomunitateak edozein unetan murriztu ahal izango du Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketaren Etorbizuna zehazteko Hitzarmenaren III. eranskinean aurreikusitako hondakin-bolumena, zabortegi

Asimismo, La Mancomunidad Urola Erdia, a través de la mercantil Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A., cede el derecho de uso de los suelos sobre los que se vaya a ubicar la estación de transferencia de Lapatx por plazo de cincuenta años, para la realización de actividades directamente vinculadas con la gestión y explotación de la estación de transferencia.

Serán de cuenta del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa la realización de cuantas obras de construcción, reparación, mantenimiento o acondicionamiento considere necesarias, quedando éstas incorporadas a los inmuebles.

En todo caso, las obras quedarán en beneficio de la mercantil Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A. sin derecho a indemnización alguna.

Los gastos de mantenimiento y conservación del bien cedido, así como los de agua, luz, teléfono, limpieza, impuesto sobre bienes inmuebles, saneamientos, basuras, seguros de daños y cualesquiera otros que les sean aplicables al bien cedido, serán de cuenta y cargo del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

*Decimocuarta.* La cesión contemplada en el presente Convenio tiene carácter oneroso, y el precio de la misma se fija en dos con cincuenta euros/m<sup>2</sup> anuales, cantidad que se actualizará anualmente con el índice de precios al consumo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

No obstante lo señalado en el apartado anterior, la mercantil Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A. se reserva el derecho de recuperar el derecho de uso de los inmuebles descritos en la estipulación anterior:

- Por incumplimiento de las condiciones contenidas en el presente Convenio.
- Por el uso de los inmuebles citados para una finalidad distinta de la prevenida en la estipulación decimoquinta del presente Convenio.
- Por razones de interés público.
- Por mutuo acuerdo.
- Por desaparición de los bienes objeto de cesión.
- Por extinción de su derecho de uso sobre el suelo.

#### SECCIÓN CUARTA

##### OTRAS ESTIPULACIONES

*Decimoquinta.* A la firma del presente Convenio se constituye una Comisión técnica integrada por siete responsables técnicos, tres de las Mancomunidades con vedadero, Sasieta, Urola Erdia y Urola Kosta, dos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y dos designados por el Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La Comisión técnica asumirá las funciones de control y coordinación derivadas de la extensión de la vida útil de los vertederos, tanto en lo que afecta a su ampliación o adecuación, como en lo que se refiere a su funcionamiento, hasta la puesta en marcha del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa.

Asimismo, la Comisión técnica verificará el cumplimiento de las estipulaciones del presente Convenio.

*Decimosexta.* Dada la limitada capacidad física de la vaguada ocupada por el vertedero Urola Erdia, inclusive una vez efectuada la ampliación, si por cualquier motivo (retraso en los plazos de puesta en marcha del CGRG etc.) la Mancomunidad Urola Erdia constatase que el vertedero Lapatx se va a colmar antes de la fecha prevista para la puesta en marcha del CGRG, la Mancomunidad podrá, en cualquier momento, reducir el volumen de residuos previsto en el Anexo III del «Convenio para la Definición del Futuro de la Gestión de los Residuos Urbanos de Gipuzkoa» hasta aquellos niveles que garanticen la posibilidad

horretan hondakinak bota ahal izatea bermatzen duten mailetaraino, eta gutxienez Urola Erdia Mankomunitatean bertan sortzen diren hiri-hondakinak bota ahal izatea, Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Zentroa abian jarri arte.

Hori erabakiz gero, Urola Erdia Mankomunitateak neurri hori hartu dela jakinaraziko dio Gipuzkoako Hondakinaren Kontsorzioari, neurria hartu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

**Hamazazpigarrena.** Gipuzkoako Hondakinaren Kontsorzioak hitzarmen honetan aurreikusitako guztia gauzatuko du Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa S.A.U. bere erakunde instrumentalaren bitartez. Ondorio horretarako, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak Hitzarmena onartuko du, eta, Hitzarmeneko subjektu gisa, bertan aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak bere gain hartu ahal izango ditu; honenbestez, aurrerantzean, Hitzarmenaren ondorio diren harreman guztiak Urola Erdiko Lapatz Zabortegia, S.Aren eta aipatutako sozietatearen artean erabakiko dira.

Urola Erdia Mankomunitateak hitzarmen honetan aurreikusitako guztia gauzatuko du Urola Erdiko Lapatz Zabortegia SA bere erakunde instrumentalaren bitartez. Ondorio horretarako, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak Hitzarmena onartuko du, eta, Hitzarmeneko subjektu gisa, bertan aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak bere gain hartu ahal izango ditu; honenbestez, aurrerantzean, Hitzarmenaren ondorio diren harreman guztiak Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa S.Aren eta aipatutako sozietatearen artean erabakiko dira.

**Hemezortzigarrena.** Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta haren interpretazio eta garapenerako administrazio publikoen arteko hitzarmenetan ezartzekoa den zuzenbide-administrazioari antolamendura joko da. Hitzarmenaren bigarren atalen adierazitakoari dagokionez, berariaz ezartzekoa da diru-laguntzei buruz indarrean dagoen araudia.

Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak izango du horren ardura.

**Hemeretzigarrena.** Parte hartzen duen alderdi bakoitzak bereganatzen dituen erantzukizunak lankidetzat hitzarmen honen bidez bere gain hartzen dituen betebeharrak baino ez dira.

**Hogeigarrena.** Hitzarmenak ondorioak izango ditu eta alderdiak lotuta geratuko dira sinatzen den egunetik aurrera.

**Hogeita batgarrena.** Hitzarmena ebazpen bidez iraungiko da.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo Hitzarmena hautsi dadin eskatzea. Halaber, eta hala badagokio, Gipuzkoako Hondakinaren Kontsorzioak egindako ekarpen ekonomikoa osorik itzultzea eskatu ahal izango da.

#### LEHENENGO XEDAPEN IRAUNKORRA

Baimena ematen zaie Mankomunitateak hitzarmen hau izenpetu baino lehen baimendutako pertsona edo erakundeei Lapatz zabortegian hondakinak isurtzeko, hitzarmen honetako Lehenengo Atalean aurreikusitako prozedurari lotu gabe.

de vertido en dicho vertedero cuando menos de los residuos urbanos generados por la propia Mancomunidad Urola Erdia hasta la puesta en marcha del CGRG.

En tal caso, la Mancomunidad Urola Erdia notificará la medida al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa con al menos tres meses de antelación.

**Decimoséptima.** El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ejecutará todas las previsiones del presente Convenio a través de su sociedad instrumental Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa, S.A.U. A tal efecto, el Consejo de Administración de la sociedad procederá a la aprobación del Convenio, y podrá ejercer los derechos y obligaciones en él previstos como sujeto del mismo, por lo que en adelante cuantas relaciones se deriven del Convenio se resolverán entre la Urola Erdiko Lapatz Zabortegia, S.A. y la señalada sociedad.

La Mancomunidad Urola Erdia ejecutará todas las previsiones del presente Convenio a través de su sociedad instrumental Urola Erdiko Lapatz Zabortegia, S.A. A tal efecto, el Consejo de Administración de la sociedad procederá a la aprobación del Convenio, y podrá ejercer los derechos y obligaciones en él previstos como sujeto del mismo, por lo que en adelante cuantas relaciones se deriven del Convenio se resolverán entre Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa, S.A. y la señalada sociedad.

**Decimotava.** El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios entre administraciones públicas. Se declara de expresa aplicación, en lo referente a la sección segunda del mismo, lo dispuesto en la vigente normativa de subvenciones.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

**Decimonovena.** Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente Convenio de Colaboración.

**Vigésima.** El Convenio surte efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma.

**Vigesimoprimera.** El Convenio se extinguirá por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del Convenio y, en su caso, la devolución íntegra de la aportación económica realizada por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA

Se autoriza el vertido en el vertedero de Urteta, sin necesidad de que se acojan al procedimiento prevenido en la Sección Primera del presente Convenio, a las personas o entidades autorizadas por la Mancomunidad con anterioridad al presente Convenio.